Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 30a, asteartea — 80 — Martes, a 30 de abril de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

*545/2019 Foru Agindua, apirilaren 26koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartuko duten udaletako idazkari eta langileentzako ordainsariei buruzkoa.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2019ko apirilaren 26an:

«Diputatu nagusiaren apirilaren 1eko 1/2019 Foru Dekretuaren bidez (apirilaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 63. zk.), Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeen deialdia egin zen: maiatzaren 26an izango direnak, toki-hauteskundeekin eta Europako Parlamenturako hauteskundeekin batera.

Hauteskunde horiek direla eta, hauteskunde-prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuak parte hartzen dutenentzako ordainsariak eta kalteordainak ezartzen ditu 6. artikuluan.

Hala, toki-hauteskundeak eta Europako Parlamenturako hauteskundeak deitzen dituen Estatuko Administrazioak 605/1999 Errege Dekretuaren 6. artikuluaren 3.b) atalean jasotako kopuruak ordaintzen dizkie udal idazkariei, eskualdeko hauteskunde-batzordeen ordezkari lanak egiteagatik (Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 11.4 artikulua); era berean, idazkariak ez diren udaletako langileek emandako aparteko zerbitzuak ere ordaintzen ditu, aipatutako artikuluaren 7. zenbakian aurreikusitako moduan. Bi kasuetan, ezarritako kopuru horiei aplikatu behar zaie artikulu horren beraren 10. zenbakian aurreikusitako igoera: administrazio publikoetako langileen ordainsarietarako urteko aurrekontuen legean onartzen dena.

Alabaina, hirugarren hauteskunde-prozesu bat gehitzeak –Gipuzkoako Batzar Nagusietakoa– udaletako idazkari eta gainerako langileentzat lana gehitzea ere badakar, eta horrek behartzen du Foru Aldundia, hauteskunde horiek deitzen dituen administrazioa den aldetik, konpentsazio osagarria ematera. Konpentsazio osagarri hori aipatu 6. artikuluaren 3. eta 7. zenbakietan aurreikusitakoen heren bat izango da.

Idazkariei dagozkien ordainsariak zehazteko, idazkari den udalerrian edo udalerrietan benetan eratutako hauteskunde-mahaien kopurua hartzen da kontuan, Idazkaritzari dagokionez udalerri horiek elkartu edo metatu izaera duten alde batera utzita. Halaber, udaletako gainerako langileek emandako aparteko zerbitzuak ordaintzeko, udalerrian benetan eratzen den mahai bakoitzeko zenbateko bat ezartzen da.

Horrenbestez, 2019ko maiatzaren 26an deitutako hauteskundeetarako hauteskunde-atal, mahai eta hauteslekuen behin-behineko zerrenda argitaratu ostean (2019ko apirilaren

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

*Orden Foral 545/2019, de 26 de abril, sobre gratificaciones a secretarias y secretarios y al personal de los ayuntamientos por su intervención en las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa.*

El diputado foral del Departamento ha dictado, con fecha 26 de abril de 2019, la siguiente orden:

«Mediante el Decreto Foral 1/2019, de 1 de abril, del diputado general (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 63, de 2 de abril), se convocaron las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa, que se celebrarán el próximo día 26 de mayo, coincidiendo con las elecciones locales y con las elecciones al Parlamento Europeo.

En relación con dichos comicios, el Real Decreto 605/1999, de 16 de abril, de regulación complementaria de los procesos electorales, establece en su artículo 6 las gratificaciones e indemnizaciones al personal participante.

Así, la Administración del Estado, que convoca las elecciones locales y al Parlamento Europeo, abona a las secretarias y secretarios de los ayuntamientos, en cuanto delegadas y delegados de las juntas electorales de zona (artículo 11.4 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General), las cantidades que vienen determinadas en el apartado 3.b) del artículo 6 del Real Decreto 605/1999, de 16 de abril; igualmente, remunera los servicios extraordinarios prestados por el resto del personal de los ayuntamientos en la forma prevista en el número 7 del artículo 6. En ambos casos, las cantidades fijadas en dichos preceptos se incrementarán en los términos establecidos en el número 10 del mismo artículo; es decir, en la misma proporción que se apruebe en las leyes anuales de presupuestos para las retribuciones del personal al servicio de las administraciones públicas.

La adición de un tercer proceso electoral, el de las Juntas Generales de Gipuzkoa, supone un incremento de trabajo para las secretarias y secretarios y el resto del personal de los ayuntamientos, que obliga a una compensación complementaria a cargo de esta Diputación Foral, como administración convocante de dichas elecciones; compensación cuyo importe se estima oportuno fijar en la tercera parte de las que figuran en los citados números 3 y 7 del artículo 6.

Las gratificaciones para los secretarios y secretarias se fijan en función del número de mesas electorales que efectivamente se constituyan en el municipio o municipios en los que actúen como secretarias y secretarios, con independencia de la naturaleza de agrupados o acumulados que tengan dichos municipios con relación a la persona titular de la Secretaría. De la misma manera, para renumerar los servicios extraordinarios que preste el resto del personal de los ayuntamientos se establece una cantidad fija por cada mesa efectivamente constituida.

Por tanto, publicada la relación provisional de las secciones, mesas y locales electorales para las elecciones convocadas el 26 de mayo de 2019 (en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 67, de

EK\CV GAO-I-2019-02735

8ko 67. zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN), jada aipatu udaletako langileei ordainsari osagarri gisa Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko dizkien zenbatekoak onartu behar dira.

Hori dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan eta Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 31ko 7/2017 Foru Dekretuak 1.1.e) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eskualdeko hauteskunde-batzordeetako ordezkari lanak egin behar dituztenez gero, Foru Aldundiak udal idazkariei ondorengo sariak ordainduko dizkie, toki-hauteskundeengatik eta Europako Parlamenturako hauteskundeengatik Estatuko Administrazioak ordainduko dizkienen osagarri gisa:

— 372,51na euro, beren kargu 50 mahai baino gehiago dituzten Donostia eta Irungo udaletako idazkariei.

— 338,64na euro, beren kargu 11 mahaitik 50era dituzten ondorengo udal hauetako idazkariei: Andoain, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Legazpi, Oiartzun, Oñati, Pasaia, Tolosa, Zarautz, Zumaia eta Zumarraga.

— 304,77na euro beren kargu 10 mahai edo gutxiago dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako udaletako idazkariei, beren eginkizunak udal bakar batean edo, elkarte edo metaketaren bidez, batean baino gehiagotan beteko dituzten alde batera utzita.

*Bigarren.* Aurreko atalean ezarritako ordainsari horiek jasotzeko eskubidea hauteskunde-prozesu osoagatik dela ulertuko da. Idazkariak karguan denbora gutxiago iraunez gero, kopuru proportzionala jasotzeko eskubidea izango du.

*Hirugarren.* Batzar Nagusietarako hauteskundeetan udaletako gainerako langileek emandako aparteko zerbitzuak ordaintzeko, 16,93 euro jarriko ditu Foru Aldundiak udalerri bakoitzean benetan eratutako mahai bakoitzeko, Estatuko Administrazioak langile horiei toki-hauteskundeekin eta Europako Parlamenturako hauteskundeekin lotutako zerbitzuengatik ordainduko dienaren osagarri gisa.

Aparteko zerbitzuei dagozkien diru kopuruak udalei ordainduko zaizkie; eta, ondoren, udal bakoitzak interesdunei ordainduko die, idazkariek erabakitako banaketaren arabera.

*Laugarren.* Aurreko lehenengo eta hirugarren ataletan ezarritako diru kopuruen bidez ordainduta geratuko dira bai hauteskunde- prozesuaren garapen arrunta; baita, kasua balitz, hauteskundeen errepikapena edo hauteskunde-prozesuaren ondorioz gerta litekeen beste edozein bozketa-ekintza ere. Beraz, kasu horietan ez da ordainketa berririk egingo.

*Bosgarren.* Foru agindu honetan aipatzen diren zenbatekoak aurrekontuko 0310.100.227.19.00.2019 kontu sailaren kargura ordainduko dira, hauteskunde-batzordeen agintaldia amaitu ondoren.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

8 de abril de 2019), procede aprobar las cantidades que la Diputación Foral de Gipuzkoa abonará al personal ya referido de los ayuntamientos en concepto de gratificaciones complementarias.

En su virtud, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 1.1.e) del Decreto Foral 7/2017, de 31 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, este diputado foral

RESUELVE

*Primero.* Las secretarias y secretarios de los ayuntamientos, por el desempeño de sus funciones de delegadas y delegados de las juntas electorales de zona en las elecciones a las Juntas Generales de Gipuzkoa, percibirán de la Diputación Foral las siguientes gratificaciones como complementarias de las que les abonará la Administración del Estado por las elecciones locales y al Parlamento Europeo:

— 372,51 euros, el secretario del Ayuntamiento de San Sebastián y la secretaria del Ayuntamiento de Irun, con más de 50 mesas a su cargo.

— 338,64 euros, cada secretaria o secretario de los siguientes ayuntamientos, con un número de mesas a su cargo comprendido entre 11 y 50: Andoain, Mondragón, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Legazpi, Oiartzun, Oñati, Pasaia, Tolosa, Zarautz, Zumaia y Zumarraga.

— 304,77 euros cada secretario o secretaria del resto de ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con 10 o menos mesas a su cargo, con independencia de que actúen como tales en un ayuntamiento o en más de uno por agrupación o por acumulación.

*Segundo.* El derecho a la percepción de las gratificaciones establecidas en el apartado anterior se entiende referido a la totalidad del proceso electoral. En el supuesto de permanencia en el cargo por un tiempo inferior, se tendrá derecho a una cantidad proporcional.

*Tercero.* Para remunerar los servicios extraordinarios prestados por el resto del personal de los ayuntamientos en las elecciones a las Juntas Generales, se establece la cantidad de 16,93 euros por cada mesa electoral que efectivamente se constituya en el municipio, en concepto de gratificación complementaria de la que abonará la Administración del Estado a dicho personal por los servicios relacionados con las elecciones locales y al Parlamento Europeo.

Las cantidades resultantes se harán efectivas a los ayuntamientos respectivos, para su abono a las personas interesadas conforme a la distribución que determinen las secretarias y secretarios.

*Cuarto.* Los importes establecidos en los apartados primero y tercero sufragarán tanto el desarrollo ordinario del proceso electoral como la repetición de elecciones o actos de votación que se originen derivados de la celebración de aquél, sin que, por tanto, en estos supuestos deba efectuarse ninguna nueva asignación.

*Quinto.* Las cantidades a que se refiere la presente orden foral se abonarán con cargo a la partida 0310.100.227.19.00.2019, una vez que haya concluido el mandato de las juntas electorales.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

EK\CV GAO-I-2019-02735

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko apirilaren 26a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (2735)

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 26 de abril de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (2735)

EK\CV GAO-I-2019-02735